



Hizkuntza erabileraren neurketa

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Metodologia.....	3
3. Ahozko Erabilera	4
3.1. Ikuskizunak.....	4
3.2. Ikuskizunen Aurkezpenak	6
3.3. Jarduera Paraleloak.....	7
3.4. Aurkezpen Prentsaurrekoa.....	7
3.5. Jarduera Paraleloen prentsaurrekoak	7
3.6. Konpainien aurkezpen prentsaurrekoak.....	8
3.7. Balorazio prentsaurrekoa.....	8
3.8. Jendaurreko zerbitzuak.....	8
4. Idatzizko Materiala.....	9
4.1. Programazio Liburuxka.....	9
4.2. Esku Orriak, Sarrerak,.....	9
4.3. Prentsa Dossierrak.....	9
4.4. Posta Elektronikoa.....	10
4.5. Web Orria.....	10
5. Ondorioak Eta Proposamenak.....	11

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, dFERIAren hizkuntza erabileraren neurketa egin du. Orain arte, Donostiako aisialdian eragina duten beste ekintza nagusietan egiten dugun bezala: Giza Eskubideen Zinemaldian, Aste Nagusian, Jazzaldian, Zinemaldian eta Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldian.

Garrantzitsua da oso eguneroko bizitzan euskararen erabilera normalizatzea. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskararen presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzak, euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dutela.

Jakin badakigu ere, Donostiako Antzerki feria merkatu profesional bat dela non programatzaile gehienak Euskal Herritik kanpokoak diren. Hala nola, aurtengo dFERIA Espainia, Mexiko, Uruguai, Peru, Polonia, Frantzia, Dominikar Errepublika, Dinamarka, Costa Rica, eta Kolonbiako programatzaileak izan dira. Baina era berean, sarrerak Donostiako hiritar orok eskura ditzake.

Hau horrela, dFERIA antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, dFERIA euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Feriak bere gain hartzen dituen ahozko ekitaldi nahiz idatzizko euskarriak neurtzen saiatu gara: ikuskizunen aurkezpenak, Feriak eman dituen ikuskizunak, jarduera paraleloak, programazio aurrerapenaren txostena, programazio gida, kartelak, web orria etab. neurtu ditugu.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 2 ataletan azaldu dugu eta kasu guztietan ele bitan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Antzezlanak, dantzak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, aurkezpenak eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da dFERIAN. Antolakuntzaren argitalpenak (programazio liburuxka, prentsa dossierrak, esku orriak ...), kartelak, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Ikuskizunak

Hona hemen laburbilduta ikusitako **ikuskizunen zerrenda** eta daturik nabarmenenak:

Martxoak 10

13:00etan HAUTSA (PARASITE KOLEKTIBOA), Intxaurrondo Kultur etxea

Aurkezpena bi eletan egin zuten. Lehenik euskaraz eta jarraian gazteleraz. Ikuskizuna euskaraz egin zuten eta atzean zuten pantailan gazteleraz azpidatzita. Esku orria bi hizkuntzetan idatzia.

Obra honen aurretik, **Demode Quartet Taldeak "Epa!"** bere bigarren ikuskizuna taularatu zuen euskaraz.

17:00etan MADIFATHINKA (ERTZA), Gazteszena

Aurkezpenik ez zen egin. Ikuskizuna 5 hizkuntzatan (euskara barne). Banatutako esku orria euskara hutsez.

16:30ean EL AMOR DESPUES DEL AMOR (ADOS), Antzoki Zaharra

Aurkezpena off ahotsean bi eletan. Antzerki obra, berriz, gazteleraz. Idatzizko materiala gazteleraz.

20:00etan LO ÚNICO QUE NECESITA UNA... (Vaca), Liburutegi Nagusia

Aurkezpenik ez. Antzerki obra gazteleraz. Esku orria bi hizkuntzatan.

20:30ean CASA DE MUÑECAS (Bramant Teatre), Victoria Eugenia antzokian

Aurkezpena off ahotsean bi eletan. Euskaraz lehenbizi eta jarraian gazteleraz. Antzerki obran aldiz, hasieran keinu txiki bat euskaraz egin bazuten ere gazteleraz. Esku orria bi eletan.

23:45ean HIRU ZITROIN LUR HOTZEAN (Mizel Théret), Victoria Eugenia Club

Aurkezpenik ez zen izan. Dantza ikuskizuna hizkuntzarik gabe (musika zenbait pieza euskaraz). Esku orriak bi eletan.

Martxoak 11

10:00etan DISTANCIA 7 MINUTOS (TITZINA TEATRE)

Aurkezpenik ez zen egin. Antzerki obra gazteleraz. Esku orria bi hizkuntzatan.

12:00etan KARAOKE (CIELO RASO), Intxaurrondo kultur etxea

Aurkezpenik ez zen egin. Obra ere hizkuntza gabea. Esku orriak, berriz, bi hizkuntzatan.

13:00etan: RITE OF SPRING (Granhoj dans), Gazteszena

Aurkezpenik ez zen egin. Obraren hizkuntza ingelesa eta daniera. Esku orria bi eletan (euskaraz eta gazteleraz).

17:30ean HOOKED (LASALA) eta **SELF** (MATXALEN BILBAO), Victoria Eugenia Club

Aurkezpenik ez zen egin. Bi obra hizkuntzarik gabeak. Esku orria, berriz, euskaraz.

19:00etan LA ESCUELA DE LOS VICIOS (Morfeo Teatro), Antzoki Zaharra.

Aurkezpena off ahotsean bi eletan. Antzerki obra gazteleraz. Esku orria bi hizkuntzatan.

20:30ean 7 ALDIZ ELUR (TANTTAKA), Victoria Eugenia antzokia

Aurkezpena off ahotsean bi hizkuntzatan egin zen euskaraz lehenik eta ondoren gazteleraz. Ikuskizuna euskaraz batez ere (tarteka gazteleraz eta portugesez ere abestu zuten). Euskaraz aritzen zirenean gazteleraz azpidatzita.

Martxoak 12

10:00/11:00etan PULGARCITO/ERPURUTXO (Teatro Paraiso), Lugaritz kultur etxea

Aurkezpenik ez zen egin. Antzerki obra lehenengo saioa gazteleraz eta bigarren saioa euskaraz. Bi esku orri banatu zituzten bat euskaraz eta bestea gazteleraz.

11:30ean MUCHO TIEMPO, POCAS COSAS (Intxaurrondoko Kultur etxea)

Aurkezpenik ez zen egin. Obra hizkuntzarik gabea gehien bat (hitz batzuk gazteleraz tarteka). Esku orria bi hizkuntzetan.

13:30ean MEMORIA DE UN OLVIDO (Provisional Danza), Intxaurrondo K.E

Aurkezpenik ez zen egin. Obra gazteleraz. Eskuko orria bi hizkuntzatan.

17:30/22:00etan EL VUELO (El Mural), Victoria Eugenia Club

Aurkezpenik ez zen izan. Antzerkiaren hizkuntza gazteleraz. Esku orria bi eletan.

19:00etan CUARTETO DEL ALBA (Laurentzi producciones), Antzoki Zaharra

Aurkezpena off ahotsean bi eletan (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz). Antzerki obra gazteleraz. Esku orririk ez zuten banatu.

20:30ean MUGAKOA (Dantzaz), Victoria Eugenia Antzokia

Aurkezpena off ahotsean bi eletan (euskaraz eta ondoren gazteleraz). Dantza ikuskizunak ez zuen hizkuntzarik izan. Esku orriak bi eletan.

23:30ean YO ESTUVE ALLÍ ... (Hortzmuga), Atano III. Frontoia.

Aurkezpena bi eletan (euskaraz eta jarraian gazteleraz). Antzezlanaren hizkuntza gazteleraz. Esku orria gazteleraz.

Martxoak 13

10:00/10:30ean BARBANTXO (Logela multimedia), Lugaritz K.E

Lehenengo saioan aurkezpena eta antzezlanaz gazteleraz eta bigarren saioan euskaraz. Esku orria bi hizkuntzatan.

11:15ean BARROCAMIENTO (Siosi Teatro), Intxaurrondo K.E

Aurkezpenik ez zen izan. Antzerki obra gazteleraz. Esku orria bi hizkuntzatan.

13:00ean NADA TRAS LA PUERTA (Traspasos Kultur), Gazteszena

Aurkezpenik ez zen izan. Antzerkia gazteleraz. Esku orria bi hizkuntzatan.

17:30/22:00etan BÉISBOL (Veracruzana), Victoria Eugenia Club

Aurkezpenik ez zen izan. Antzerki obra gazteleraz. Esku orria bi eletan.

19:00etan PETIT PIERRE (Bambalina Teatre), Antzoki Zaharra

Aurkezpena off ahotsean bi eletan. Obraren hizkuntza gazteleraz. Esku orria bi hizkuntzatan.

20:00/23:30ean GELTOKIA (Aukeran dantza), Victoria Eugenia antzokian

Aurkezpena off ahotsean bi eletan. Obraren hizkuntza orokorrean ez zen egon (zerbait euskaraz). Eskuko orririk ez zuten banatu.

Ikuskizunaren aurretik, **GOLDEN APPLE CUARTET** taldearen saio labur bat izan zen gazteleraz.

20:00/23:30ean EUSKAL AKTOREEN BATASUNeko ANTZERKI LEHIA

Aurkezpena bi eletan. 3 antzerki obrak euskaraz. Esku orririk ez zuten banatu.

3.2. Ikuskizunen aurkezpenak

Orokorrean ez da aurkezpenik izan eta aurkezpena izan duten kasuetan ele bitasuna mantendu da. Bestetik, oharrak eman dituzten kasuetan ere, ele bitasuna mantendu da.

3.3. Jarduera Pareleloak

Aurten dFERIAren barruan izan diren jarduerak paraleloak gora egin dute nabarmen. Iaz 4 jarduerak izatetik aurten 16, ikus-entzuleentzako zuzenduak gehien bat, eta beste 4 jarduerak profesionalei zuzendutakoak. Euskarak 8 jardueretan izan zuen presentzia.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa

Otsailaren 11n, dFERIA 2014ko programazioa aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokiko Txina Aretoan.

Prentsaurrekoan izan ziren: Nerea Txapartegi (Udal Gobernuaren Kultura eta Euskara arduraduna), Garazi Lopez de Etxezarreta (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria), José Luis Ibarzabal (Eusko Jaurlaritzako antzerki teknikaria), Xabi Puerta (SGAEko ordezkaria), Belén Moneo (irudiaren egilea) eta Norka Chiapusso (dFERIAko zuzendaria).

Nerea Txapartegik eman zion hasiera prentsaurrekoari gonbidatuak euskaraz aurkeztuz. Ondoren, dFERIAren azalpen bat egin zuen bi eletan. Hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanaz. Jarraian gonbidatuak banan-banan hartu zuten hitza, gehienek euskaraz eta ondoren gaztelaraz. Interbentzio bakarra izan zen gaztelara hutsez (Xabi Puertarena hain zuzen).

Norka Chiapusok berriz, bi hizkuntzak erabili zituen eta Nerea Txapartegik bezala hizkuntza bakoitzean informazio propioa eman zuen.

Azkenik, Belen Moneok kartelaren irudiaren zergatia gaztelara hutsez azaldu zuen.

Bukatzeko, Nerea Txapartegik galdera tarteak euskaraz zabaltu zuen. Hiru galdera egin zituzten, hirurak gaztelaraz.

3.5. Jarduera paraleloen prentsaurrekoa

Otsailaren 25ean, dFERIA 2014ko Jarduera Paraleloak aurkeztu ziren Victoria Eugenia Antzokiko prentsa aretoan.

Prentsaurrekoan izan ziren: Iker Tolosa (Donostia 2016ko kultur teknikaria), Belen Cruz (Euskal Aktoreen Batasuneko ordezkaria) eta Norka Chiapusso (dFERIAko zuzendaria).

Norka Chiapusok mahaikideak aurkeztu zituen euskaraz eta ondoren gaztelaraz. Jarraian gonbidatuak bi hizkuntzak erabili zituzten bi hizkuntzen arteko oreka mantenduz. Galderak ere euskaraz eta gaztelaraz izan ziren (3 gaztelaraz eta 2 euskaraz).

3.6. Konpainien aurkezpen prentsaurrekoak

Atal honetan dFERIAko ikuskizunak aurkezteko astean zehar egin diren prentsaurrekoak hartu ditugu kontuan.

Prentsaurreko hauetan, dFERIAren arduraduna den Norka Chiapusok ematen zien hasiera prentsaurreko guztiei. Sarrera labur bat izaten zen gonbidatuak aurkezteko, orokorrean, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz (behatutako 22 prentsaurrekoetatik, 13 aurkezpen ele bitan, 8 euskara hutsez eta 2 gazteleraz egin zituen).

Ondoren, gonbidatuen esku geratu ohi zen hizkuntzaren erabilera. Orokorrean gaztelera gailendu da, (22 prentsaurrekoetatik 14tan gaztelera gailendu da eta 5 prentsaurrekoetan ele bitasuna mantendu da eta bakarrean euskara gailendu da).

Prentsaurrekoen ondoren egindako galdera gehienak gazteleraz izan arren, zenbait prentsaurrekotan euskaraz egindako galderen erantzunak euskaraz jaso zituzten.

3.7. Balorazio prentsaurrekoa

Martxoaren 14an, dFERIAko balantzea aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokiko Txina Aretoan.

Prentsaurrekoan Nerea Txapartegik (Kultura eta Euskara delegatua) eta Norka Chiapusok (dFERIAko zuzendaria) hitz egin zuten. Nerea Txapartegik euskaraz eta gazteleraz egin zuen eta Norka Chiapusok balorazio osoa euskara hutsez egin zuen luze. Bukatzean, galdera tarte zabaltzen euskaraz eta bi galdera izan ziren gazteleraz.

3.8. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun ere neurtu nahi izan dugu. Hainbat ekitalditan zeuden laguntzaileekin euskaraz egin ahal izan dugu.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har, dFERIAko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala ele bitan izan da.

4.1. Programazio aldizkaria

31 orrialdeko aldizkaria da. Azalean kartel ofiziala du, ele bitan. Kontrazalean, berriz, antolatzaileen eta laguntzaileen logotipoak daude. Barruan, azaltzen den informazio guztia elebitan dago. Ikuskizunen azalpenaren kasuan, euskarazko testuak letra zuriz idatzita daude eta gaztelerazko paragrafoak urdinez.

Bestetik, iragarki bakarra dago (Gipuzkoako Foru Aldundiarena) euskaraz.

4.2. Esku orriak, sarrerak...

Atal honetan dFERIA inguruan sortzen den gainerako material idatzia biltzen dugu, jende gehienarengana iristen den materiala.

Aurten Donostia Kulturak parte hartu duten ikuskizun bakoitzeko esku orri bat kaleratu du. Bertan, obraren irudia, izenburua, eguna, ordua, lekua, obraren azalpen labur bat eta fitxa teknikoa dago. Azaltzen den informazio guztia bi eletan idatzia dago.

Victoria Eugenia Museoa izandako ikuskizunetan ere esku orriak banatu zituzten bertan izandako obrekin. Guztiak bi eletan.

Bestetik, Konpainiek kaleratutako 13 esku orri jaso genituen. 8 gazteleraz (*La escuela de los vicios*, *Garbancitoren bi esku orri*, *Pulgarcito*, *El amor después del amor*, *Casa de Muñecas*, *Madifathinka* eta *no lo contaron como yo lo vi*), hiru bi eletan (*Geltokia*, *Hurrengo geltokia* eta *epa!*) eta beste bi euskaraz (*Madifathinka* eta *Ez zuten nik ikusitakoa kontatu*).

Akreditatuen poltsan jasotako materialean Artez aldizkaria banatu zuten. Aldizkariak kaleratzen dituen berriak gazteleraz badira ere, dFERIAk argitaratutako informazio guztia bi eletan zegoen. Bestalde, Victoria Eugenia Antzokian urtariletik ekainera izango diren jarduerekin liburuxka bat zegoen. Hau ere bi eletan.

Azkenik, emanaldietarako eskuratu ditugun sarreretan informazioa bi eletan dago.

4.3. Prentsa dossierrak

dFERIAren aurkezpen eta balorazioan prentsaurrekoetan banatutako dossierrak ele bitan zeuden euskarak lehentasuna duela.

Astean zehar, dFERIA-n parte hartu duten konpainien prentsaurrekoetan banatu zituzten dossierretatik aldiz, 23 prentsa oharretatik, 18 gaztelera hutsez, 4 ele bitan eta bakarra euskaraz izan ziren.

4.4. Posta elektronikoa

Posta elektroniko bidez jasotako prentsa oharretan, informazio gehiena euskaraz edo ele bitan jaso dugu eta antolakuntzakoekin izan ditugun mezu trukeak euskaraz egin ditugu.


4.5. WEB gunea

dFERIAren webgunea zabaltzerakoan norberak ordenagailuan konfiguratuta duen hizkuntzan irakur daiteke. Ondoren, euskaraz edo gazteleraz irakurtzeko aukera ematen du (euskarazko bertsioan zabaltzen bada "español" klikatuz eta gaztelerazko bertsioan zabaltzen bada "euskara" klikatuz). Informazio guztia bi hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du.

ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.


Ahozkoan eta **ikuskizunetan** erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskararen eta gaztelararen presentzia eta erabilera ez dira parekoak izan. Hala ere, iazko datuekin alderatuta euskarazko ikuskizunetan euskararen presentziak ehunekotan, gora egin du (%50,00a gaztelaraz, %28,125a euskaraz, %18,75a hizkuntzarik gabe eta %3,125a). Ikuskizunen kopuruari dagokionez 29 ikuskizunen 32 emanaldi programatu dira (16 emankizun gaztelaraz, 9 euskaraz, 6 testurik gabe eta 1 beste hizkuntza batean).



Ikuskizunen jatorriari erreparatuz gero %53a euskal ekoizpenak izan dira, %27 Estatuko gainontzeko autonomi erkidegoetakoak eta %20a, atzerrikoak.

Bestetik, ikuskizunen aurretik egin diren **aurkezpenetan** elebitasuna mantendu da.

Astean zehar egin diren **prentsaurrekoak** orokorrean hartuta, iazko datuekin alderatuta euskara erabili den portzentajea antzekoa izan da. Iaz %37,50 eta aurtan %36,36a. Horretaz gain, prentsaurreko guztietako agurretan euskara erabili da.



Jarduera osagarrietan aurten ekintza ugari egin da, orotara 16. Horietatik 8 ekintzetan euskara erabili da (%50ean hain zuzen). Aipamen berezia egin nahi du BAGERA Elkarteak Euskal Aktoreen Batasunak antolatutako antzerki lehiagatik. Bertan 15 aktore, 3 dramaturgo eta 3 zuzendari euskaldunek 3 antzerki obra sortu zituzten, euskaraz, 12 ordutan eta hurrengo egunean antzeztu publikoaren aurrean.


Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean (esku programa, programazio liburuxka, web orria, dFERIAko esku informazioa, kartela, ...) ele bitasuna mantendu den arren, hutsune nabarmenena astean zehar egiten diren prentsaurrekoetan antolakuntzatik banatzen dituzten prentsa dossierretan (hau da, Donostia Kulturak dFERIAN parte hartuko duten konpainien prentsarako dossierretan) topatu dugu. Aurten gainera gaztelerazko dossierrek gora egin dute %78,26ra arte.

Guk jaso ditugun konpainien prentsa **dossierretatik**:

% 78,26a gazteleraz (iaz % 66,67a).

% 17,39a ele bitan (iaz% 28,57a).

% 4,35a euskaraz izan da (iaz % 4,76).



Bestetik, aurten antolakuntzatik ikuskizuneko esku orri bana kaleratu zuen bi eletan eta hau positibotzat baloratzen du BAGERAk.

Antolakuntzatik kanpo dauden beste argitalpenenetan (guk eskuratu ditugun esku orrietan) gaztelera nagusitu da (8 gazteleraz, 3 bi eletan eta 2 euskaraz). Kopuruz iaz baino esku orri gutxiago jaso ditugu eta gazteleraz gehienak.

Konpainien **esku orriak**:

% 23,08a ele bitan (iaz % 50).

%61,54a gazteleraz (iaz % 42,86).

%15,38a euskaraz (% 7,14).

Laburbilduz, BAGERA Elkarteak, aurtengo dFERIA2014 edizioan euskararen erabileran aurrerapausoak ematen jarraitu direla deritzo; Jarduera paraleloetan eskaini diren euskarazko jardueretan, prentsaurrekoetan (batzuetan maila

txikian izanda ere) aurkezpenak bi eletan izan dira, nahiz eta gonbidatuek euskaraz ez jakin, ikuskizunetan ere euskarazko obrak gora egin dute.

Material idatzian, hutsunerik handiena berriz, antolakuntzatik banatzen diren prentsa dossierretan dago. Baina aipatzekoa da, antolakuntzatik, aurtan ikuskizun bakoitzeko bi eletan kaleratu diren esku orriak banatu dituztela. Bai prentsaurrekoetara joan diren kazetariei zein ikuskizunetara joan diren ikusleei.

Guzti hau kontutan hartuta, ondokoa proposatzen die BAGERA Elkarteak dFERIAren antolatzaileei: prentsaurrekoetan euskara erabilera areagotzen jarraitzea, prentsa dossier guztietan, gutxienez, elebitasuna bermatzea eta lortutako aurrerapausoetan sendo mantentzea (prentsaurrekoetan, aurkezpen berezietan, ikuskizunen kopuruan). Bide horretan, BAGERAren esku dagoen heinean, laguntza behar izanez gero, beti prest edukiko gaituzue.

BAGERA Elkarteak

Katalina Eleizegi 36, beheak
20009 Donostia
Tel: 943467181
bagera@bagera.net

